



Getariako Udala

Gora herria!

Ondo dakigun bezala, 2022ko irailaren 6a egun berezia zen. Batetik, 500 urte betetzen zirelako, Elkano kapitain zela, gizakiak munduari lehen itzulia eman zionetik, eta, bestetik, 100 urte igaro zirelako Getariako herriak Lehorreratzea lehen aldiz antzestu zuenetik.

Atzoko aparteko egunak, gainera, hamarnaka herritarrek aurrera eramandako herri-elkarrizketa zuen oinarri. Elkarren arteko interakziotik sortutako berrikuntzak jasotzen zituen 2022ko Lehorreratzeak, eta espektatibaz begiratzen genion herri-antzezlanari.

Patxadaz balorazioak egiteko momentua iritsiko bada ere, hau guztia aurrera ateratzeko parte hartu duzuen guztioi gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Zuek guztiok gabe, hau ez zen posible izango. Bihotz-bihotzetik, mila esker bolondresei, musikariei, kantariei, kontinenteetako ordezkariari eta tripulazioari, eta jostunei. Baita antolakuntzan buru-belarri jardun zaretenoi ere. Lortu dugu!

Jon Maiak idatzitakoarekin amaitu nahiko nuke eskertza-gutun hau: “Egunotan bi hitz zabaldu dira Getariatik Euskal Herrira: *Esperantza* eta Elkano. Elkano iraganetik dator, esperantza etorkizunari dagokio. Biak portu beretik. Izan gaitezen gure historiaren lemazain, mundu berri baten bila. Beste mundu bat posible da”.

Besarkada handi bat guztioi.

Gora Getaria!

Haritz Alberdi Arrillaga
Getariako Alkatea